Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

# Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA jn.

Donostiako Udaleko idazkari nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián

Honakoa ziurtatzen dut:
Certifico:

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamabiko irailaren hogeita zazpian egin zuen osoko bilkuran, **Erakunde adierazpen hau** onartu zuen, **BILDU Taldeak aurkeztua, Frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereilaren aldekoa**. Adierazpen horrek, bileran onartu ziren **sei zuzenketak** ere eginda ditu, denak ala denak ere erabaki zatiari buruzkoak, PSE-EE Taldeak aurkeztutakoak hiru (ordezkatzeko zuzenketak bi eta kentzekoa bat) eta BILDU eta PSE-EE Taldeen artean adostutakoak beste hirurak (eranstekoa bat eta aldatzekoak bi). Horrenbestez, honako hau dio adierazpenak, hitzez hitz:

*"2010eko apirilaren 14an, kereila bat aurkeztu zen Argentinako zigor arloko epaitegi batean, diktadura frankistak 1936ko uztailaren 17tik –Francoren altxamendua– 1977ko ekainaren 15a arte, Estatu Espainiarrean egindako genozidioa edo/eta gizateriaren aurkako delituak zirela-eta. Biktimen familiarrek eta Argentinako, Estatu Espainiarreko eta Euskal Herriko gizarte elkarte eta giza eskubideen elkarteek aurkeztu zuten kereila.*

*Beraz, frankismoaren eta oraindik bizirik dauden frankisten aurka juridikoki borrokatzeko benetako aukera dago, eta 4591/10 Kereilan gauzatu da. María Servini de Cubría epaileak, Argentinar Errepublikako Buenos Aires hiriko 1. epaitegiko titularrak, darama auzia.*

*Frankismoaren Aurkako Kereilaren Euskal Plataforman parte hartzen duten elkarteetako batzuek proposatu dute euskal erakundeek ere beren jarrera agertzea diktadura frankistak*

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de Septiembre de dos mil doce, aprobó la siguiente **Declaración institucional presentada por el Grupo BILDU a favor de la querella Argentina contra los crímenes del franquismo,** que **incorpora las seis enmiendas** aprobadas, todas a la parte dispositiva, tres presentadas por el Grupo PSE-EE, dos de sustitución y una de supresión y por ultimo tres enmiendas transaccionadas entre los Grupos BILDU y PSE-EE, una de adición y dos de modificación, quedando el texto como sigue:

*"El 14 de abril de 2010 se interpuso una querella ante un juzgado en lo penal de Argentina por los delitos de genocidio y/o crímenes de lesa humanidad cometidos en el Estado Español por la dictadura franquista entre el 17 de julio de 1936fecha del alzamiento fascista, y el 15 de junio de 1977. Esta querella fue presentada por familiares de víctimas y asociaciones sociales y de derechos humanos argentinas, del Estado Español y de Euskal Herria.*

*Es decir, que la posibilidad de arremeter jurídicamente contra el franquismo y los franquistas supervivientes es real y se ha concretado en la Querella 4591/10, que lleva adelante la juez María Servini de Cubría, titular del Juzgado Nº1 de Buenos Aires, República Argentina.*

*Algunas de estas asociaciones, agrupadas en la "Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo", han propuesto que las instituciones vascas también se posicionen ante la*

IFK CIF P2007400A / TEE REL 01200697
6161N 97-06

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

*egindako krimenek gozatu duten zigorgabetasunaren aurrean, eta publikoki babes dezaten kereila hori.*

*Franco buru zuen altxamendu militarrak Errepublikako Gobernu legitimoa eta Gobernu autonomikoak eroarazi zituen eta erregimen totalitario bat ezarri zuen, pertsonak eta eskubideak jazartzean eta deuseztatzean oinarrituta. Pertsonei, herriei, ukatutako eskubide horiek, sozial eta politikoak, oraindik ez dira ikertu.*

*1977ko Amnistiaren Legeari esker, frankismoak errepresaliatutako pertsona asko askatuak izan ziren, baina lege horrek aukera eman zuen, baita ere, sistema frankistaren eta bere laguntzaileen zigorgabetasuna bermatzeko. Hala, oker deitutako trantsizio politikoaren prozesu osoak iraun zuen bitartean, botere politikoaren, judizialaren eta militarraren egiturei eutsi zieten eta frankismoaren oinarrizko zutabeak bermatu zituzten: Estatuaren batasuna, Kapitalaren nagusitasuna eta Eliza Katolikoaren estatus pribilegiatua.*

*Diktadoreak bere sistema lotua, eta ondo lotua utzi zuela argi ageri da, oraindik, hainbeste urte iragan eta gero. Auzitegi Nazionala dugu horren adibide bat, auzitegi politiko gisa sortua; sistema monarkikoa, beste bat, oraindik bizirik Estatuan, eta Ibarretxeren kontra, alderdi sozialistako eta ezker abertzaleko kideekin batera, egindako epaiketa politikoak, beste bat. Denak, oraindik, errealitatearen parte dira. Halaber, torturak, manifestarien kontrako errepresio basatiak, legez kanpo uzteak... horiek ere gure orainaren parte dira.*

*HORIEK HORRELA, Bildu taldeak, elkarte horien ekimena kontuan hartuta, honakoa proposatzen du:*

*1.- Donostiako Udalak, Memoria Historikoaren Legearen barruan, adierazten du babestu egiten dituela frankismoaren biktimei erreparazioa eta justizia morala aitortzeko ekimen guztiak, Argentinar Errepublikako Buenos Aires hiriko 1. epaitegiaren ekimena barne.*

*2.- Donostiako Udalak salatu egiten ditu legez eratutako gobernuen kontrako altxamendu militar guztiak, esate baterako 1936ko uztailekoa, Franco jeneralak Errepublikako Gobernuaren kontrako gerra hasi zuenekoa, legearen kontra. Era berean, hiri honetako Udalbatzak berretsi egiten ditu lehen ere eginak dituen adierazpenak, Euskadiko eta Kataluniako gobernuen aldekoak, Errepublikaren garaian legez eratuta ziren eta erregimen frankistak*

*impunidad de los crímenes realizados por parte de la dictadura franquista y que apoyen públicamente la querella antes nombrada.*

*La sublevación militar encabezada por Franco que derrocó el Gobierno legítimo de la República y los Gobiernos autonómicos e instauró un régimen totalitario, se basó en la persecución y aniquilación de personas y de derechos. Estos derechos negados a las personas, a los pueblos, derechos sociales y políticos no han sido investigados a día de hoy.*

*Gracias a la ley de Amnistía de 1977, mucha gente represaliada por el franquismo pudo ser liberada, pero dicha ley también sirvió para asegurar la impunidad del propio sistema franquista y sus colaboradores que, durante todo el proceso mal llamado "de transición política", mantuvieron las estructuras de poder político, judicial, económico, militar y asegurar los pilares fundamentales del franquismo: la unidad del Estado, la preeminencia del Capital y el estatus privilegiado de la Iglesia Católica.*

*El reflejo de que "atado y bien atado" dejó el dictador su sistema se refleja en que pese a pasar los años, la Audiencia Nacional nacida como juzgado político, el sistema monárquico aún instaurado en el Estado y los juicios políticos contra Ibarretxe junto a miembros del partido socialista e izquierda abertzale son aún parte de la realidad. Igual que las torturas, represiones brutales a manifestantes, ilegalizaciones, son parte del presente.*

*POR TODO ELLO, el grupo Bildu, considerando la iniciativa de dichas asociaciones propone:*

*1.- El Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián manifiesta, dentro del marco de la Ley de Memoria Histórica, su apoyo a todas las iniciativas para la reparación y justicia moral a las víctimas del franquismo, incluida la iniciativa judicial del juzgado nº 1 de Buenos Aires, República Argentina.*

*2.- El Ayuntamiento de Donostia- San Sebastián condena todas las sublevaciones militares contra los gobiernos legítimamente constituidos como fue el caso de julio de 1936 cuando el General Franco de forma ilegítima inició una guerra contra el Gobierno de la República. Asimismo el Ayuntamiento Pleno de esta ciudad reitera sus declaraciones históricas de apoyo a los gobiernos Vasco y Catalán que legítimamente estaban*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N-97/06

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

*iraun zuen 40 urtean atzerrian jarraitu zuten gobernuen aldekoak.*

*Orobat, nekazaritzako, industriako eta finantzetako oligarkiek, eta baita Eliza Katolikoaren hierarkiaren parte handi batek ere, altxamendu militarra babesteko eta finantzatzeko orduan nahiz gero ezarritako erregimen frankistari eusteko orduan izan zuten papera ere salatzen du Donostiako Udalak.*

*3.- Donostiako Udalak salatzen du nekazaritza, industria eta finantza oligarkiek eta Eliza Katolikoaren hierarkiak jokatutako papera, hasieran kolpismoari lagundu baitzioten eta, gero, ezarritako erregimen totalitarioari.*

*4 .- Donostiako Udalak hitz ematen du, bere eskumenak baliatuta, beharrezko neurriak hartuko dituela eskubide hauek bermatzeko: egia ezagutzeko eskubidea, justizia eraginkorra izateko eskubidea eta ordain duin eta ez diskriminatzailea izateko eskubidea. Hala berean, Donostiako Udalak erregimen frankistaren garaian gertatutakoaren egia historikoa argitzeko egin behar diren azterketa zientifiko, akademiko, unibertsitario eta abar guztiak babestuko ditu. Eta, azkenik, balioak eta hezkuntza jorratzen jarraituko du, altxamendu frankista eta haren erregimena bezalako gauzarik berriz gerta ez dadin.*

*5.- Donostiako Udalak Frankismoaren Krimenen Kontrako Kereilaren berri emango du."=========*

Eta horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, **Egiaztagiri** hau egin dut, Donostian, bi mila eta hamabiko azaroaren bederatzian.

*constituidos en el periodo republicano y se mantuvieron en el exilio durante los 40 años de régimen franquista.*

*A su vez, El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián denuncia el papel que parte de las oligarquías agraria, industrial y financiera, así como gran parte de la jerarquía de la Iglesia Católica tuvieron a la hora de apoyar y financiar la sublevación militar, y después en sostener el régimen franquista instalado después.*

*3.- El Ayuntamiento de Donostia denuncia el papel jugado por parte de las oligarquías agrarias, industrial y financiera y la jerarquía de la Iglesia Católica, que apoyaron al golpismo, primero, y al régimen totalitario instaurado después.*

*4.- El Ayuntamiento de Donostia, se compromete, en base a sus competencias, a adoptar medidas necesarias para garantizar el derecho a la verdad, el derecho a la justicia efectiva, el derecho a una reparación digna y no discriminatoria. A su vez este Ayuntamiento apoyará cuantos estudios científicos, académicos, universitarios, etc. se realicen para esclarecer la verdad histórica sobre lo acontecido durante el régimen franquista. Y por último, seguirá trabajando en valores y educación para que hechos como el alzamiento franquista y su régimen no se repitan.".*

*5.- El ayuntamiento de Donostia dará a conocer la querella contra los crímenes del franquismo. "====*

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta **Certificación** visada por la Alcaldía y de su orden en la Ciudad de San Sebastián, a nueve de Noviembre de dos mil doce.

**O. E. - Vº Bº :**
**ALKATEAK - EL ALCALDE,**

Juan Carlos Izagirre Hortelano

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Alkatetza
Alcaldía

Secretario General

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06